

conexiones **improbables**  
oiz egin + zoohaus



# oiz egin + zoohaus itaurrean

## CONEXIONES IMPROBABLES

Euskadi 2012/2013

---

### ENPRESA

[[www.oizegin.com](http://www.oizegin.com)]

**Oiz Egin** Durangaldea eta Lea Artibai (Bizkaia) eskualdeak sustatzeko plataforma. Bi elkarteek dute beren eskualdeetako landa-eremuen garapena zaintzeko ardura.

---

### IKERKETA

Landa-eremuko bizilagunek lurraldea zaintzen duten funtzioaren inguruan kontzientziatzea, funtzio hori gainontzeko agenteei ematea eta lurraldeko agente-sarea handitu eta aktibatzea.

---

### ARTISTA

[[www.inteligenciascolectivas.org](http://www.inteligenciascolectivas.org)]

**Zoohaus** sarean sortzeko plataforma da; arkitektura eta beste diziplina batzuekin erlazioatutako agenteen interesak nahasten ditu.

---

### EMAITZA

**Itaurrean**, sareko azpiegitura agroekologikoa.

adimen kolektiboa/  
herri jakituriak/  
ezagutza-jarduerak/  
komunitate banatua/  
sareko azpiegitura/  
ezkutuko berrikuntza/  
baliabide ukiezinak/  
giza kapitala/landa-garapena/  
lurraldearen zaintza/  
nekazalgunea/prokomuna/  
garapen jasangarria/  
interdependentzia



## **ZEIN BALIABIDE DITUGU HEMEN?**

**Iturrean** hitzak, euskaraz, «idien uztarria gidatuz» esan nahi du, eta sareko azpiegitura agroekologiko moduan definitzen da. Produktu ekologikoen elaborazioa eta banaketarekin lotutako ekimen ezberdinak biltzen dituen proiektu-aterkia da; eta horrez gainera, «turismoa, gastronomia, hezkuntza, hazien zaintza edo giza kapitala» bezalako hurbileko beste eremu batzuk ere biltzen ditu.

Gaur egungo formulazioan, proiektua, **Oiz egin** eta **Zoohaus**-ek Durangaldea eta Lea Artibai eskualdeetan bizi eta lan egiten duten agenteekin hainbat hilabetetan izandako elkarriketen emaitza da. Elkarriketa horiek hainbat gairen ingurukoak izan ziren: Zer esan nahi du gaur egun lurraldearen zaintzak? Zein baliabide ukigai eta ukiezin ditugu eskura? Nola antola ditzakegu helburu komun bat lortu ahal izateko?

Prozesua lurralde-ikerketa gisa hasi zen, pertsona eta erakunde horiek zeuden lekuetara joanez, haien jarduera eta esperientziak hobeto ezagutzeko. Lehen fase horretatik lurraldeko baliabide eta agenteen inbentario luzea sortu zen. Baina OpenLab-etan hasi zen finkatzen produkzio agroekologikoaren inguruan lan egitearen ideia, **Oiz egin**-en hitzetan «beti han egon den nekazalgunearen proiektu zaharrari» ikuspegi berri bat emanez.

Egindako bi saioetan, eskualde bakoitzeko bana, ekoizleak, abeltzainak, kontsumitzaileak, lur-jabeak, sukaldariak eta prokomuna edo elkarlaneko lan moduak bezalako gaietan adituak gonbidatu zituzten. Hainbat gai jorratu ziren, hala nola salmenta-puntuak, ostalaritzarekin harremana, produktuaren dibertsifikazioa, konfiantzazko zigilua edo marka sortzeko aukera, ezagutzaren belaunaldiarteko transmisioa edo ekintzen interdependentzia eta zeharkakotasuna. Eta hiru jardunbide nagusi identifikatu ziren: komertzializazioa eta kontsumitzailearekin harremana; aliantzen sustapena, babesak eta sareak; eta azpiegituren erabilera hibridoak edo konbinatuak sustatzeko premia.



**1.** 2013ko martxoaren 14an Berrizen eta Markina-Xemeinen (Bizkaia) aldi berean egindako 2 OpenLab-etako une bat. **2.** Zoohaus-ek Oiz Egin-ekin egindako lan-saioa. **3.** Zoohausek identifikatutako adimen kolektiboen inguruan egindako fitxak. **4.5.** 2013ko martxoko OpenLabetan egindako hainbat jarduera.



ohiko nekazalgunearekin alderatuta, itaurrean-ek, agroekologiari zeharka heltzen dio eta zuzenean oinarritzen da lurraldeko agenteetan. lurraldearen zaintza ulertzeko modu desberdina da

## **NEKAZALGUNEA ULERTZEKO BESTE MODU BAT**

Gaur egungo planteamenduan, **Iturrean** proiektuen proiektu gisa aurkezten da. Helburu nagusia produktu agroekologikoen elaborazioa zein banaketa sustatu eta hobetzea da, ahalik eta pertsonarik gehienen eskura jarritz. Baina ez hori bakarrik. **Iturrean**-ek agroekologiarekin lotutako beste ekintza mota batzuk ere zabaldu nahi ditu, besteak beste, pertsona eta erakundearen sarea sortzea, agroekologia bizitza errealaren alternatiba gisa sustatzea (soroetarako sarbidea hobetzea bezalako ekintzekin), produktu agroekologikoen kontsumoa erraztea, komertzializaziorako aukerak aztertzea, beste entitate eta erakunde batzuekin lotutako tokiko antolaketa elkarlaneko moduak entseatzeko, eta azkenik, agroekologia eta laborantza tradizionalaren inguruko ezagutzen hezkuntza eta partekatzea sustatzea, ekintza-programa eta gizarteratze-espazioen bitartez, fisikoak zein digitalak.

Ohiko nekazalgune batetik bi elementuk bereizten dute **Iturrean**. Bata, ekoizpen agroekologikoarekin lotutako alor ugari ekiteko borondatea, zeharka eta elkarri lotuta. Bestea, lurraldeko agenteek betetzen duten funtzio nagusia da. Proiektua sarean egindako lan handiaren emaitza da, antolaketa horizontal eta banatuaren barruan. Azken finean, **Iturrean**ek, lurraldea zaintzearen ideia beraren inguruan, modu diferentean, pentsatzeko oinarriak ezartzen ditu. «Guk modu zabalean ulertzen dugu, ingurunetik haratago», diote **Oiz egin**-en. «Giza paisaia eta paisaia kulturalaren kudeaketak arduratzen gaitu, balioak, ondasun ukiezina, harreman sozialak, kontsumo-ohiturak eta kudeaketa-ereduak. Orain, **Iturrean**-ekin, lehen bereizirik lantzen genituen alde ugari biltzen ditugu, gure jarduerak osatzen duen puzzle handiaren piezak batuz».

## **LURRALDEKO ADIMENAK**

Lan-prozesua **Zoohaus**-en **Inteligencias colectivas** tresnaren inguruan antolatu da. Tresna hori soluzio konstruktibo espontaneoak kartografiatzeko sortu zen, baina beste edozein eremuri aplikagarria ere bada. «Proposamenen hedapen-, analisi- eta aktibazio-mekanismoa den metodologia ere bada.

Hor dauden baliabideak dokumentatzeko balio du, tokiko ezagutzatik elikatzen direlako; horrez gainera, baliabide horiek ikusgai egiteko mekanismoak garatzeko ere balio du».

Baliabide horiek —edo adimenak— era askotakoak izan daitezke: eraikitzeke, administratzeko, ekoizteko, banatzeko edo erlazionatzeko moduak. Baina baita oso teknika eta gaitasun zehatzak ere. Orokorrean, jakituria informalak, herrikoiak eta estandarizatu gabeak dira, ingurune batean bizi diren baliabide eta komunitateen gestioarekin erlazionatutakoak. Gainera, **Inteligencias colectivas**-ek jakituria horiek lengoia bisual batera eramaten ditu, eta errazagoa da, beraz, horien jakitun izatea eta kapital terminoetan baloratzea, ukigaia edo ukiezina izan.

Horrela, **Inteligencias colectivas**-en metodologiari esker, lurraldeko baliabideak ikuspuntu desberdin batetik ikus daitezke. Adibidez, mendi baten bazkatzen ari den artalde baten irudi klasikoak beste esanahi bat hartzen du ekintza horrek paisaiari eusteko ere balio duela eta ekarpen hori kuantifikatu daitekeela dakigunean: parte-hartzaileetako batek egindako kalkuluaren arabera, kilo bat ardi-gazta egiteak, gutxi gorabehera, lurraldearen 150 m<sup>2</sup> eustea esan nahi du. «Berrikuntza, askotan, betikoa da baina beste modu batean begiratuta».

### **EZKUTUKO BERRIKUNTZA-MODUAK**

«Proiektu honek eskualdeetako landa-ekonomia arrastatuko du», diote **Oiz egin**-en. «Lehendik genuena modu desberdinean ikusteko balio izan digu batik bat». Prozesuan eskualdeetako berrikuntza-moduak identifikatu dira, baliabideen antolaketa- edo gestio-terminoetan balio handiarekin, beren testuinguruan beren burua berrikuntza-modutzat ez dutenak eta beren testuingurutik kanpo ezezagunak direnak.

**Zoohaus**-ek, aldi berean, prozesu mota horiek beste eremu batzuetan, landa-eremutik kanpo, aplikatzeko duten potentziala nabarmentzen du. «Bi eskualde horietan aztertuz, hainbat gako aurkitu ditugu eta gako horiek, orain, berrikuntza sozialeko ekimenetan bilatzen ari dira, hiri-testuinguruetan. Prokomuna,



«bi eskualde hauetan berrikuntza sozialeko gakoak aurkitu ditugu hiri-testuinguruetan, ezagutza hori esportagarria da»

3



4



5



#### Erreferentziak

- Angelo, Temporary Services, WhiteWalls, *Prisoners' Inventions*, WhiteWalls Inc., 2005.
- Bernard Rudofsky, *Architecture Without Architects: A Short Introduction to Non-Pedigreed Architecture*, University of New Mexico Press, 1987.
- Vladimir Arkhipov, *Home-Made: Contemporary Russian Folk Artifacts*, Fuel Publishing, 2006.
- Ernesto Oroza, Penélope de Bozzi, *Objets réinventés: La création populaire à Cuba*, Alternative, 2002.
- *Mi mecánica popular* aldizkaria, 1947ko maiatza - 2003ko apirila.
- Donna Haraway, «Situated Knowledges: The Science Question in Feminism and the Privilege of Partial Perspective», en *Feminist Studies* 14, no. 3 (Fall 1988).



kooperatibak, beherapena, bizi-ohitura jasangarriagoei eustea, gertuko kontsumoa edo teknika tradizional eta herri-jakituria bezalako problematikak, hemen, eguneroko gauzak dira. Eta ezagutza hori esportagarria da». Jakituria horien identifikazioa eta balio-emateak landa-eremuari buruzko narratiba garaikideagoak lantzeko ere balio du.

### **AZPIEGITURA BANATUA**

Eredu zentralizatuaren aurrean, ekoizpen- edo banaketa-espazio baten inguruan eratutakoa, **Iturrean** hasieratik aurkezten da azpiegitura banatu moduan, lurraldean barrena sakabanatuta dauden proiektu, agente eta erakunde ugaritan oinarritzen dena. Sare horren oinarria sare hori osatzen duten pertsonak dira, haien esperientziak eta jakituria. Giza kapital hori da **Iturrean**-en aktiborik handiena. «Adimen guzti horien aurkikuntza hainbat pertsonarekin izandako topaketaren eskutik etorri da, hemen gertatzen den guztiaren motorra». Agente horiek beren ekimenetatik abiatuta egiten dute bat sarearekin, bezero edo hornitzaile bezala parte-hartzeaz gain, nodo aktibo, hartzaile, igorle eta sare-biderkatzaile gisa ere parte hartuz. «Uneren batean, esplotazio handi edo eraikin enblematiko baten ideian pentsatu zen. Baina ez dugu horrelakorik behar, pertsona, proiektu, toki... guzti horiek ditugulako, sare bat garelako».

### **Informazio gehiago**

[[www.inteligenciascolectivas.org/category/ic-oiz-egin](http://www.inteligenciascolectivas.org/category/ic-oiz-egin)]

### **Proiektuaren bideoa**

[[www.conexionesimprobables.com](http://www.conexionesimprobables.com)]

abstract castellano

# oiz egin + zoohaus itaurrean



inteligencia colectiva/  
saberes populares/  
prácticas de conocimiento/  
comunidad distribuida/  
infraestructura en red/  
innovación oculta/  
recursos intangibles/  
capital humano / desarrollo rural/  
custodia del territorio/  
agro-aldea / procomún/  
desarrollo sostenible/  
interdependencia

## ¿QUÉ RECURSOS TENEMOS AQUÍ?

**Oiz Egin** es un plataforma para la promoción de las comarcas de Durangaldea y Lea Artibai, en Bizkaia. Sus objetivos, al embarcarse en **Conexiones improbables**, eran concienciar al mundo rural de su papel de custodia del territorio, trasladar este papel al resto de los agentes y activar la red de agentes del territorio. A esta llamada respondió el colectivo **Zoohaus**, compuesto por profesionales de la arquitectura y otras disciplinas, con un marcado interés por la creación en red. **Itaurrean** es el resultado de su colaboración. **Itaurrean**, que en euskera significa «guiando la yunta de los bueyes», es un proyecto-paraguas sobre producción agroecológica en relación con «el turismo, la gastronomía, la educación, la custodia de semillas o el capital humano» que, en palabras de **Oiz Egin**, da un nuevo enfoque a «un viejo proyecto de agroaldea que siempre había estado ahí». Es el resultado de varios meses de conversaciones en torno a preguntas como ¿qué significa hoy la custodia del territorio? ¿de qué recursos tangibles e intangibles disponemos? ¿cómo podemos organizarlos para un objetivo común?

## OTRA FORMA DE ENTENDER LA AGROALDEA

El mayor objetivo de **Itaurrean** es mejorar la elaboración y distribución de los productos agroecológicos.

Pero también quiere desplegar otro tipo de acciones relacionadas con la agroecología: generar una red de personas y organizaciones, fomentar la agroecología como alternativa de vida real, estudiar alternativas de comercialización, favorecer el intercambio de conocimientos, etc. A diferencia de una agroaldea al uso, **Itaurrean** aborda la agroecología de manera transversal y se apoya directamente en los agentes del territorio. Es una forma diferente de concebir la custodia del territorio. «Nos preocupa la gestión del paisaje humano y cultural, los valores, el patrimonio intangible, las relaciones, los hábitos de consumo o los modelos de gestión. Ahora englobamos aspectos que antes trabajábamos por separado. Este proyecto va a arrastrar la economía rural de las comarcas» aseguran desde **Oiz Egin**.

#### **INTELIGENCIAS DEL TERRITORIO**

El proceso se ha articulado en torno a la herramienta **Inteligencias Colectivas** de **Zoohaus** «que sirve como mecanismo de difusión, análisis y activación de propuestas y para documentar recursos que ya están ahí, porque heben del conocimiento local, y hacerlos visibles». Estos recursos —o inteligencias— pueden ser diversos: formas de construir, administrar, producir, distribuir o relacionarse pero también técnicas, competencias, saberes informales relacionados

con la gestión de los recursos y las comunidades de un entorno. Además, **Inteligencias Colectivas** los traduce a un lenguaje visual, de manera que sea más fácil valorarlos como un capital.

#### **FORMAS DE INNOVACIÓN OCULTA**

En el proceso se han identificado formas de innovación presentes en las comarcas pero que en su contexto no se reconocen como tal y fuera de él son desconocidas. «En estas dos comarcas» dice **Zoohaus**, «hemos encontrado claves de innovación social en contextos urbanos. El procomún, las cooperativas, el decrecimiento, la sostenibilidad, el consumo de proximidad o los saberes populares... aquí son cosas cotidianas. Y este conocimiento es exportable».

#### **UNA INFRAESTRUCTURA DISTRIBUIDA**

Frente a un modelo centralizado, organizado en torno a un espacio de producción o distribución, **Itaurrean** se presenta como una infraestructura distribuida, que se apoya sobre una multitud de nodos diseminados por el territorio. La base de esa red son las personas y ese capital humano es el mayor activo de **Itaurrean**. «Son el verdadero motor de todo lo que ocurre aquí». Estos agentes se unen a la red a partir de sus propias iniciativas, no como clientes o proveedores solamente sino también como receptores, emisores y multiplicadores de la red.

english abstract

# oiz egin + zoohaus itaurrean



collective intelligence/  
popular wisdom/  
knowledge practices/  
distributed community/  
networked infrastructure/  
hidden innovation/  
intangible resources/human capital/  
rural development/land stewardship/  
ecoagricultural network/  
commons/sustainable development/  
interdependence

## WHAT RESOURCES DO WE HAVE HERE?

**Oiz Egin** is a platform for promoting the regions of Durangaldea and Lea Artibai in Bizkaia. Its objectives as it embarked in **Conexiones improbables** were to raise awareness in the rural sector of its role of land stewardship, to translate this role to other agents and to activate the territory's network of agents. Responding to this call was the **Zoohaus** collective, comprising professionals from architecture and other disciplines who have a strong interest in networked creation. **Itaurrean** is the result of their collaboration. **Itaurrean**, which in Basque means "guiding the yoke of oxen", is an umbrella project on ecoagricultural production related to "tourism, gastronomy, education, seed custody or human capital" that, in the words of **Oiz Egin**, provides a new approach to "an old ecoagricultural network project that had always been there". It is the result of several months of discussion around questions such as: What does land stewardship mean today? What tangible and intangible resources are available to us? How can we organise them for a common goal?

## ANOTHER WAY OF UNDERSTANDING ECOAGRICULTURAL NETWORKS

**Itaurrean's** main objective is to improve the production and distribution of ecoagricultural products. But it also

aims to deploy other actions related to ecoagriculture: generating a network of people and organisations, promoting ecoagriculture as a real-life alternative, analysing marketing alternatives, encouraging the exchange of knowledge, etc. Unlike the usual kind of ecoagricultural networks, **Itaurrean** addresses ecoagriculture in a crosscutting manner and is directly supported by agents in the territory. It is a different way of conceiving land stewardship. “We are concerned about the management of human and cultural landscapes, values, intangible heritage, relationships, consumption habits or management models. We now encompass aspects that were handled separately before. This project will drag the rural economy of these regions forward”, claims **Oiz Egin**.

#### **TERRITORIAL INTELLIGENCE**

The process has been structured around **Zoohaus’s Inteligencias colectivas** tool, “which serves as a mechanism to disseminate, analyse and activate proposals and to document already existing resources, given that they are fed by local knowledge, in order to make them visible”. These resources —or intelligence— may be diverse: ways of building, managing, producing, distributing or relating, but they also include technical skills and informal knowledge related to the management of resources and

communities within an environment. **Inteligencias colectivas** translates these into a visual language so that it is easier to assess them as capital.

#### **FORMS OF HIDDEN INNOVATION**

Identified during the process were forms of innovation present in the regions but that were not recognised as such within their context and were unknown outside of it. “In these two regions”, says **Zoohaus**, “we have identified keys to social innovation in urban contexts. The commons, cooperatives, degrowth, sustainability, local consumption or popular knowledge... these are everyday things. And this knowledge is exportable”.

#### **A DISTRIBUTED INFRASTRUCTURE**

Faced with a centralised model organised around a production or distribution space, **Itaurrean** presents itself as a distributed infrastructure relying on a multitude of nodes scattered throughout the territory. The basis of this network is people and this human capital is **Itaurrean’s** greatest asset. “They are the real driving force of everything that occurs here”. These agents join the network on their own initiative, not only as customers or suppliers, but also as network receivers, transmitters and multipliers.

CONEXIONES  
**improbables**  
SLOW INNOVATION

Erakundeen laguntzarekin/ Con el apoyo de/ With the support of:

